



## II. ATALA

### BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

#### Berrizko Udala

**Merkataritzan, ostalaritzan eta zerbitzuetan kanpoko errotuluak eta webguneak euskaraz jartzeagatik diru-laguntzen oinarrien behin-betiko onarpena.**

2022ko uztailaren 6ko 128.zenbakia duen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Merkataritzan, ostalaritzan eta zerbitzuetan kanpoko errotuluak eta webguneak euskaraz jartzeagatik diru-laguntzen oinarrien araudiaren behin-behineko onarpena eta jendaurrean azaltzeko epea gainditu ondoren ez da erreklamaziorik aurkeztu:

*Lehena:* Merkataritzan, ostalaritzan eta zerbitzuetan kanpoko errotuluak eta webguneak euskaraz jartzeagatik diru-laguntzen oinarrien behin betiko onarpena.

*Bigarrena:* Erabaki honen berri Udal kontuhartzaitzari jakinaraztea eta Bizkaiko Aldizkari ofizialean zen udal iragarki taulan argitaratzea.

Berrizen, 2022ko abuztuaren 22an. — Alkateak

**MERKATARITZAN, OSTALARITZAN ETA ZERBITZUETAN KANPOKO ERROTULUAK  
ETA WEBGUNEAK EUSKARAZ JARTZEAGATIK DIRU-LAGUNTZAK****1. Xedea**

Oinarri hauen xedea honakoa da: diru-laguntzak emateko oinarriak arautzea merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuetako establezimenduek errotuluak eta webguneak euskaraz/elebidun jartzeagatik Berrizko udalerrian.

**2. Diru-laguntzen baldintzak eta helburua**

Diru-laguntzen helburua izango da merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuetan diharduten establezimenduen kanpoko errotuluak eta webguneak euskaraz jartzea.

Errotuluetakoa testua euskaraz eta/edo elebidun idatziko da eta euskara hutsean, honelako kasuetan:

- a) Errotuluetakoa hitzek euskaraz eta gaztelaniaz antzeko grafia dutenean.
- b) Mezuak piktograma batez lagundurik direnean eta haren bitartez ulergarriak direnean.
- c) Bulegoen barne biraketa euskaraz eta gaztelaniaz dagoen direktorioari lotuta dagoenean.
- d) Ez da onartuko hizkera edo irudi sexistak erabiltzea, ez eta gizonen eta emakumeen rolei dagokienez erabilera estereotipaturik erabiltzea ere, otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean xedatutakoari jarraituz.
- e) Errotulua/web orria zuzen idatzita egongo da. Euskara sailak gainbegiratura.

Ez dute diru-laguntzarik jasoko izen propioak, toponimoak, akronimoak, abizenak edo izen komertzial neutroak baino agertzen ez dituzten errotuluek.

Berrizko udalaren Euskara Zerbitzuak doako aholkularitza zerbitzua eskainiko die interesatuei.

euskara@berriz.eus

Telefonoa: 946 225 369

**3. Onuradunak**

1. Deialdi honek eskainitako diru-laguntzen onura jaso ahal izango dute baldintza hauek betetzen dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoek:

- a) Euskara hutsean edo elebidun idatzita dagoen errotulu bat jarritakoan.
- b) Aurreko araua, kartel bakoitzari aplikatuko zaio. Beraz, denda batek errotulu bat baino gehiago jarri dezake, bere fatxadak hala eskatzen badu.
- c) Izaera ez ofizialeko entitateek bakarrik jaso ahal izango dituzte diru-laguntza hauek. Merkataritzako, ostalaritzako edo zerbitzuetako establezimenduak, beti ere enpresa txikitzat jotakoa izatea; hau da, 50 langile baino gehiago ez izatea.
- d) Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko eskakizunak betetzea.
- e) Ez dezatela administrazio-zehapenik edo zehapen penalik jaso izan sexua dela-eta inor bazterteagatik edo, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako 4/2005 Legeak ezarritako diru-laguntzetan aurkezteko debekurik ez izatea epe horretan.
- f) Diruz lagun daitekeen jarduera gauzatzea, eta seigarren puntuan zehazten diren dokumentuak aurkeztea.

2. Finantza-erakundeak, hipermerkatuak eta establezimendu-kate handiak ezingo dira diru-laguntza honetako onuradun izan.

Era berean, diru-laguntza honetatik kanpo geratuko dira administrazio publiko baten edo batzuen partaidetza duten erakundeak.

**4. Aurrekontu-kreditua**

Diru-laguntza deialdi honen kreditu osoa udal aurrekontuan finkatuko da urtero.

**5. Eskabideak aurkezteko era eta epea**

Diru-laguntzen eskaerak bitarteko telematikoen bidez aurkeztu beharko dira Berrizko Udalaren egoitza elektronikotik ([www.berriz/Tramiteak](http://www.berriz/Tramiteak))

Eskabideak eta agiri osagarriak aurkeztu ahal izango dira, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

**6. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiri eta informazioak**

*Dokumentazio egiaztagarria:*

1. Nortasuna egiaztatzea.
2. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean dituela dioten ziurtagiriak.

*Aurkeztu beharrezko dokumentazioa:*

3. Pertsona juridikoak: Erakundearen IFZa.
4. Errotuluaren testua eta argazkia. Webguneen kasuan, helbide elektronikoa jakinarazi beharko da
5. Errotuluaren gastuari buruzko faktura.
6. Banku-kontua

Berrizko Udalak, Bizkaiko Elkarreragingarritasun nodoaren bidez, eta dagozkion el-karreragingarritasun-zerbitzuen bidez, beharrezko egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu enpresa edo erakunde interesdunei buruz, administrazioaren esku dauden diru-laguntzak emateko oinarriak arautzea merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuetako establezimenduek errotuluak eta webguneak euskaraz/elebidun jartzeagatik Berrizko udalerrian administrazio-izapideetarako behar diren datuak egiaztatzeke eta kontsultatzeko.

**7. Eskabidea zuzentzea**

Eskabideak hutsuneak baditu edo oinarri arautzaile hauetan ageri diren baldintzak bete ez baditu, organo eskudunak interesatuari eskatuko dio akatsak zuzen ditzan, gehienez ere, 10 eguneko epean. Horrez gain, jakinarazi egingo zaio, zuzenketarik egin ezean, eskabideari uko egin diola ulertuko duela Administrazioak, horretarako ebazpena bidali ondoren; Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko artículo 68 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 23.5 artikuluari jarraiki.

**8. Diru-laguntzen zenbatekoa**

1. Diru-laguntzen hasierako esleipena honela egingo da:
  - Euskara hutsean idatzitako errotulua/webgunea jartzen duenari, zenbatekoaren %50 ordainduko zaio, gehienez 360 euro.
  - Euskaraz eta gaztelaniaz, hau da hizkuntza bietan, idatzita dagoen errotulu/web orria jartzen duenari, horren %30 gehienez 180 euro abonatuko zaio, beti ere elebitasun pizgarriaren irizpidea erabiltzen badu; hau da, euskarazko testuak, bai tamainagatik, tokiagatik edo azpimarratuta egoteagatik, lehentasunezko trataera badu. Eta webguneen kasuan, orria euskaraz irekiko da.
2. Diru-laguntzaren zenbatekoak, berak bakarrik zein beste administrazio publiko zein erakunde publiko edo pribatu batzuen diru-laguntza edo laguntzekin batera, ezin izango du inola ere onuradunak egingo duen jardueraren kostu osoa gainditu. Diru-sarrerera eta gastuen justifikazioa aztertutakoan gehiegizko finantzazioa egon dela ikusi bada, gehiegizko diru-sarreraren zenbatekoa kenduko zaio diru-laguntzari.

**9. Diru-laguntzaren emakida izapidetu, proposatu eta ebazteko eskumena duten organoak**

Kudeaketa-zerbitzuari dagokio prozedura izapidetzea.

Diru-laguntzak emateko onespena eta ebazpena egiteko organo eskuduna alkatea edo hark eskuordetutako organoa izango da, aldez aurretik zerbitzuaren txosten teknikoarekin.

**10. Ebazpena jakinarazteko epea**

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikulua ezarritakoa oinarri hartuta jakinaraziko zaie interesdunei emakidaren ebazpena. Jakinarazpen edo argitalpen hori gauzatzeko aipatutako Legearen 42. artikuluan agertzen diren xedapenak bete beharko dira.

Erakunde onuradunak zeintzuk diren eta eman diren laguntzak zenbatekoak diren adieraztu da ebazpenean, eta beren-beregi aipatuko da gainerako eskabideak ez direla onartu.

Administrazio bideari amaiera ematen dion ebazpenaren aurka, interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote presidenteari, hilabeteko epean, ebazpena egiten den egunetik aurrera zenbatzen hasita; edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute administrazioarekiko auzien Bilboko epaitegian, bi hilabeteko epean. Dena dela, interesdunek egoki irizitako beste edozein errekurtso aurkez dezakete.

**11. Emandako diru-laguntza ordaintzeko modua**

Diru-laguntzak emateko ebazpena egin dela jakinarazten denean, diru-laguntza osorik ordainduko da.

Diru-laguntza ez da ordainduko pertsona edo erakunde onuradunak beste diru-laguntzaren bat justifikatu gabe baldin badu eta justifikatzeko epe hori amaituta badago. Era berean, diru-laguntza ez da ordainduko, pertsonak edo erakundeak aurreko diru-laguntzaren bat itzuli ez badu, hala eskatu zaionean.

**12. Inguruabarrak aldatzea**

Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan aldaketa nabarmenik egonez gero, ebazpena ere aldatu egin ahal izango da.

**13. Bestelako diru-laguntzekiko bateragarritasuna**

Berrizko Udalak emandako diru-laguntzak bateragarriak izango dira beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuk helburu berbererako emandako bestelako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, baina inola ere ezin izango da gehiegizko finantziatorik egon.

**14. Erakunde onuradunen betebeharrak**

Oinarri hauen arabera diru-laguntza eskuratuko duten erakundeek diru-laguntzen arloan aplikatu beharreko araudian ezarritako betebeharrak orokorrak izango dituzte eta, batez ere, 38/2003 Legearen 14. artikuluan adierazitakoak. Besteak beste, honako betebeharrak hauek izango dituzte:

1. Finantza-kontrolerako eta egiaztapenerako jarduerak onartzea, eta eskatuko zaizkion datuak ematea.
2. Beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batzuek helburu bererako bestelako diru-laguntza edo laguntzarik eman duten jakinaraztea.
3. Diru-laguntza eta bere aplikazioa behar bezala justifikatzea.
4. Eska litezkeen kontabilitate-agiriak izatea, egiaztapen- eta kontrol-jarduerak behar bezala egin ahal izateko, horrelakorik egotekotan.



5. Jasotako fondoak zertarako baliatu diren justifikatzen duten agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztapen- eta kontrol-jarduerak egitea gerta litekeen bitartean.
6. Jasotako fondoak itzultzea, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritako kasuetan, bertan adierazitakoa betez.

**15. Oinarrien interpretazioa**

Presidentea edo berak eskuordetutako organoa izango da oinarri hauek aplikatuzetik sor litezkeen arazoak interpretatu eta ebazteko organo eskuduna, eta horretarako beharrezko ebazpen osagarriak emango dituena.

**16. Aplikatu beharreko arautegia**

Oinarri hauetan aurreikusten ez diren puntuetan, honako hauek aplikatuko dira: 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa; eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Araudia onetsi duena eta aplikagarriak diren bestelako araudiak.

**ERANSKINAK / ANEXOS**

<b>Eskatzailea / Solicitante</b>			
Izen-abizenak/Izen soziala / Nombre y apellidos/Razón social		NAN/AIZ/IFZ / DNI/NIE/CIF	
Helbidea (Kalea, zenbakia eta pisua) / Dirección (Calle, número y piso)			
Posta kodea / Código postal		Udalerría / Municipio	
Posta elektronikoa / Correo electrónico		Mugikorra / Móvil	Telefonoa / Teléfono

<b>Ordezkaría / Representante</b>			
Izen-abizenak/Izen soziala / Nombre y apellidos/Razón social		NAN/AIZ/IFZ / DNI/NIE/CIF	
Helbidea (Kalea, zenbakia eta pisua) / Dirección (Calle, número y piso)			
Posta kodea / Código postal		Udalerría / Municipio	
Posta elektronikoa / Correo electrónico		Mugikorra / Móvil	Telefonoa / Teléfono

<b>Erantzukizunpeko adierazpena / Declaración responsable</b>	
Eskatzailea ez dagoela azaroaren 17ko 38/2003 Legean eta, zehazki, 13. artikuluko 2. eta 3. zenbakietan eta 34. artikuluko 5. zenbakian ezarritako debekuen eraginpean, onuradun izateko eta ordainketa jasotzeko.	<input type="checkbox"/> No estar incurso en las prohibiciones para obtener la condición de beneficiario/a y para ser receptor/a del pago establecido en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, y en concreto apartados 2 y 3 del artículo 13 y el apartado 5 del artículo 34 de la misma
Eskatzaileak konpromisoa hartzen duela azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 14. artikuluan diru-laguntzen onuradunetzat ezartzen zaizkien betebeharrak betetzeko	<input type="checkbox"/> Que me comprometo al cumplimiento de las obligaciones de los/as beneficiarios/as de subvenciones, establecidas en el artículo 14 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre
Diru-laguntzaren zenbatekoa 3.000 eurotik gorakoa ez bada, indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea	<input type="checkbox"/> Que en caso de que el importe de la subvención no supere los 3.000,00 euros, encontrarme al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias o frente a la Seguridad Social impuestas por las disposiciones vigentes.
Eskatzaileak adierazten du ikastaro hau egiteko ez diola beste diru-laguntzarik eskatu beste erakunde publiko edo pribatu bati	<input type="checkbox"/> El/La solicitante declara no tener ni haber solicitado ninguna otra subvención económica a entidades públicas o privadas para la realización de este curso
Eskatzaileak adierazten du ikastaro edo ikastaro hauek egiteko eskatu edo jaso duela dirulaguntza bat	<input type="checkbox"/> El/La solicitante declara haber solicitado o haber recibido alguna subvención para la realización de este curso

Jasotako dirua / Importe recibido .....

**Dokumentazioa / Documentación****Dokumentazio egiaztagarria / Documentación verificable**

Eskaera honen aurkezpenak, Berrizko Udala baimentzen du elektronikoki eskatzeko prozedura ebazteko behar diren agiri hauek, aurka zaudela adierazten ez baduzu (39/2015 legeko 28.2 artikulua).  
La presentación de la solicitud conlleva la autorización al Ayuntamiento de Berriz para recabar electrónicamente la siguiente documentación necesaria para la resolución de este procedimiento, salvo que usted se oponga expresamente (artículo 28.2 de la Ley 39/2015).

Aurka nago Me opongo	Dokumentua Documento	Bakarrik zure datuekin bitartezkatzearen aurka bazaude adierazi behar duzu zergatia eta dokumentazioa aurkeztu behar duzu Sólo en el caso de que te opongas a la intermediación de tus datos debes motivar por qué y adjunta el documento requerido	
		Aurka egotearen zergatia Motivación de mi oposición	Dokumentazio eransten dut Adjunto la documentación
<input type="checkbox"/>	Zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria Certificado de estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias (3)		<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/>	Gizarte Segurantzari ordaintzeko, betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria Certificado de estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones de pago a la Seguridad Social (15)		<input type="checkbox"/>
Nortasun Agiri Nazionalaren (NAN) edo atzerritarren identifikazio-zenbakiaren (AIZ) egiaztapena. Verificación del Documento Nacional de Identidad (DNI) o del Número de Identidad de Extranjero (NIE).			

**Aurkeztu beharreko dokumentuak / Documentos a presentar**

<input type="checkbox"/>	Errotuluen testua eta argazkia. Webguneen kasuan, helbide elektronikoa jakinarazi beharko da Texto del rótulo y foto. En el caso de las páginas webs se facilitará la dirección electrónica de la misma
<input type="checkbox"/>	Errotuluaren gastuari buruzko faktura Factura del gasto del rótulo

**Bankuaren datuak / Datos bancarios**

Titularra / Titular	NAN/AIZ/IFZ / DNI/NIE/CIF
---------------------	---------------------------

IBAN	Erakundea Entidad	Sikurtsala Sucursal	KD CD	Kontuaren zenbakia Número de cuenta

**Data eta sinadura / Fecha y firma**

Datuen Babesari buruzko informazioa ezagutzen dut eta esanbidezko baimena egiten dut  
Estoy informado/a acerca de la Protección de datos y realizo el consentimiento expreso

.....(e)(n), .....(-e)ko .....(a)ren .....(e)an  
En ....., a ..... de ..... de .....

Eskatzailea / Solicitante

**Datu pertsonalak**

Izaera pertsonala duten datuen babeserako araudiaren arabera, baimena ematen duzu emandako datu pertsonalak Berrizko udalaren erantzukizuna den Idazkaritza kudeaketa izeneko fitxategian sartzeko, egoitza Iturritza 51-Berriz (Bizkaia) izanik.

Tratamendu honen zeregina, idazkaritzako espedienteen eskaera, erregistro, kudeaketa eta jarraipena egitea da. Datu hauek ez zaizkie hirugarrenoei igorriko eta gorde egingo dira beti ere, xede horretarako badira.

Hala ere, emandako baimena baliogabetu dezakezu; tratamenduaren muga, sarbide, zuzenketa, ezabapen edo/eta datuen eramangarritasun eskubidea betez. Eskaera hauek Berrizko Udaltxean, Iturritza 51 48240 (Bizkaia) egingo dira.

Eta erreklamazioa aurkez dezakezu Datuen Babeserako Euskal Agentzian edo harremanetan jarri datu babeserako delegatuarekin [dpo@berriz.eus](mailto:dpo@berriz.eus)

Halaber «Datu Pertsonalen Babesaren Arloko Jardunbide Egokien Eskuliburua Euskal Autonomia Erkidegoko Toki-erakundeetarako» kontsulta dezakezu interneteko honako helbideetan: [www.eudel.net](http://www.eudel.net) eta [www.avpd.es](http://www.avpd.es)

**Datos de carácter personal**

En virtud de la normativa de Protección de Datos de Carácter Personal, por la presente autoriza a que los datos personales facilitados sean incorporados en un fichero denominado Gestión de Secretaria responsabilidad del Ayuntamiento de Berriz y con sede en Iturritza 51- 48240 Berriz (Bizkaia).

La finalidad de este tratamiento es la de gestionar su petición y el registro, gestión y seguimiento de los expedientes de Secretaria. Estos datos no serán transmitidos a terceras personas y serán conservados siempre que sea imprescindible o legítimo para la finalidad que se captaron.

En cualquier caso, podrá indicar la revocación del consentimiento dado, así como ejercitar los derechos de acceso, rectificación o supresión, la limitación del tratamiento u oponerse, así como el derecho a la portabilidad de los datos. Estas peticiones deberán realizarse en Ayuntamiento de Berriz, Iturritza 51- 48240 Berriz (Bizkaia).

Así mismo también podrá presentar una reclamación ante la Agencia Vasca de Protección de datos o ponerse en contacto con el delegado de protección de datos [dpo@berriz.eus](mailto:dpo@berriz.eus)

Asimismo, puede consultar el «Manual de Buenas Prácticas de Protección de Datos Personales para entidades locales de la Comunidad Autónoma del País Vasco» en las direcciones de internet [www.eudel.net](http://www.eudel.net) y [www.avpd.es](http://www.avpd.es)